



ETORRI, ETORRI.

PLATER ETA EDALONTZI ASKO DAUDE.

BAZKALTZEN ARI NAIZ.

ETORRI NIREKIN BAZKALTZERA.





EZIN IZAN DUT ITXARON.

JOLASTERA JOAN NAIZ.

NIRE PIRATA LAGUNAK ZABUETAN DABILTZA,

ETA NI BALOIAREKIN JOLASEAN NABIL.





IA-IA HARRAPATU NAUZUE.

AI, AI, AI, PIXA EGIN NAHI DUT!!





ZENBAT UZTAI, SOKA ETA KOLTXONETA DAUDEN!
KONTUZ! GELAN SARTU BAINO LEHEN,
ALTXORRAREN MAPA IKUSI,
PAUSOAK JARRAITU ETA ALTXORRA AURKITU.
ZORTE ON!





BI HANKEKIN 4 SALTO EMAN AURRERA.

KONTUZ! ITSASOA. IGERI EDO ARRAUN EGIN, ZUBIA
ZEHARKATU, ETA MAKURTUTA PALMONDOEN AZPITIK
PASATU.

EMAN 20 PAUSO. KUTXA BARRUAN AURKITU ALTXORRA.

